# KOLABORAZIOAK

Paulo AGIRREBALTZATEGI / EKBko lehendakaria

## Kargudun politikoak eta euskara

AMAITZEAR dago EAEn funtzionarien euskalduntzeko plangintzaren lehen fasea. Horren balantzea egiteko ordua da: lorturiko emaitzena eta egindako hutsuneena. Eta ondorioz, bigarren faseko plangintza egin beharko da.

Gogoan dugu nolako kritika-zaparrada etorri zitzaion oposizioko alderdiren batzuren aldetik orain dela hilabete batzuk funtzionarien euskalduntze-planari. Premisa, horren emaitza motzak ziren, eta konklusioa, horren aldatu beharra. Ez, ordea, emaitzak hobetzeko planean jarritako helburuen arabera, helburuak beheratzeko baizik, emaitzen mailara. Hori da zentzuduna izatea, hori! Jokabide horri jarraituz, edozein plan politiko eta edozein programa-modu izango litzateke arrakastatsu. Ez genuke, ordea, aurrerabiderik egingo. Hauteskunde-prozesuaren barrukoak edo ingurukoak izan ziren eztabaida horiek, plana bera burutu baino lehen kaleratuz eta aurreratuz emaitzen eskasia: horrexegatik agian are kezkagarriagoak, baina erlatibotzekoagoak ere bai.

Orain jakingo ditugu, ustez, EAEko funtzionarien euskalduntzeko lehen plan orokorrak eman dituen fruituak eta azken emaitzak. Horiek aurrean, azterketa eta eztabaida sozial zabal-sakona eratu beharko da egindako bideari buruz: lorpenak eta eskasiak, diseinaturiko planaren alde onak eta txarrak, eramandako politikaren zuzenak eta okerrak, aurkituriko laguntzak eta trabak.

Ez naiz hemen emaitzei buruz jardungo. Dena dela, horien analisia eta kritika ezingo dira mugatu euskara ikasi duten (edo ez duten) funtzionarien kopuruari begiratzera bakarrik; horrekin batera administrazioaren barne-eta kanpo-funtzionamendua euskalduntzeko planak eragin duen (edo ez duen) dinamika instituzional eta soziala neurtu beharko da: azken batez, euskararen erabileraren normalkuntz prezesua behar da neurtu eta aztertu (funtzionarien eta administratzaileen aldetik, eta herritarren aldetik).

Dena dela, orain arteko planaren akatsek eta politikaren okerrek eta emaitzen gorabeherek ez dute, ondorioz, ez helburuen murriztea eta ez helpideen apaltzea eragin behar, aurrera begira. Plan berriak urrats berria eskatzen du, abiaburua eta azken helburua argi edukita. Abiaburua euskaldunon eskubidea da, administrazio publikoarekin euskaraz jardutekoa; azken helburua Administrazioa euskalduntzea da. Bigarren planak (urte gutxitakoak) ezingo du noski EAEko administrazio osoaren euskalduntzea helburutzat ipini, baina bai argi eduki behar duela horixe dela azken helburua;—eta horretarako helpideak jarri behar dituela.

*Kargudun politikoak administratzaile dira —eta ez hauteskundez hautatuak bakarrik—; herritarren zerbitzuan daude, funtzionariak beste behintzat*

Administrazioa euskalduntzea funtzionariak euskalduntzea baino askoz gehiago da; euskararen erabilera normaltzea da. Herritarren eta administrazioaren artean euskararen erabilera normaltzea, batetik; eta euskara administrazioko laneko hizkuntza bihurtzea, bestetik. Horri begira urrats berri konkretua, plangintza berriak egin beharrekoa, honako hau da: kargudun politikoak euskaraz jakitea.

Kargudun politikoez ari gara; eta, hain zuzen ere, kargudun politiko publikoez: hau da, Administrazio publikoko kargudun politikoez. Funtzionarien euskalduntze-plangintzak benetako fruiturik emango badu, eta administrazioak euskaraz funtzionatuko badu barrura nahiz kanpora begira, behar-beharrezkoa da kargudun publiko politikoek euskaraz jakitea, horien menpe baitaude funtzionariak eta horien eskuetan dago neurri handi batez administrazioaren barruko funtzionamendua.

Ez da hemen funtzionarientzako jarraibide on eta eredu izatearen arazoa bakarrik: hori ere badago tartean. Behin eta berriro entzuten dugu —eta ez arrazoirik gabe—: nolatan beharruko dituzte agintariek euskaraz jakitera funtzionariak, beraiek ez baldin badakite eta ikasten saiatzen ez badira? Haien esku dago azken batez funtzionariek beren lanerako ikasitako euskara beren barruko lanean erabili ahal izatea —euskaraz baliatu ahal izatea da gainera motibazio psikologikorik handiena hori ikasteko—. Baina arazoa sakonagoa da: Administrazio publikoaren euskalduntzea; eta hori ez da lortuko gure kargudun publiko politikoek euskaraz ez dakiten bitartean.

Funtsezko arrazoia, beraz, besterik da: kargudun politikoak administratzaile dira —eta ez hauteskundez hautatuak bakarrik—; herritarren zerbitzuan daude, funtzionariak beste behintzat. Zerbitzu publikoa betetzen dute, herritarrek horretarako aukeratuta, eta herritarrek horretarako ordainduta.

Urrats berria, beraz. Aurrenik borondate politikoa behar da horretarako noski: hautagaiak aurkezten dituzten alderdien eta hautetsien borondate politikoa. Baina bere forma legala behar du urrats horrek, euskararen ofizialtasuna benetakoa izango baldin bada. Horretarako argumentazio juridikoak eta lege-formulazioak legeriek eta legegileek eman beharko dituzte.

Duela aste gutxi iragarri zuen EKBk kargudun publiko politiko gorenek euskara jakitearen auzia legeztatu beharra; horren aldeko ekintza soziala antolatzeko asmoa agertu zuen gainera. Goreneko kargudunen arazoa, ordea, ez da zerbait apartekoa; hierarki-mailak, epeak eta egoera soziolinguistikoak kontutan edukirik, kargudun publiko politiko guztientzako ireki beharko da formula juridikoren bat.

Juan Mari OLANO / Miembro de las Gestoras pro-Amnistía

## ¿Qué pasa con los medios?

RESULTA preocupante el tratamiento informativo que la mayoría de los medios de comunicación están dando a las concentraciones convocadas para los lunes por Gestoras pro-Amnistía con el lema «Euskal Herria Askatu».

Parece que lo único que preocupa a los medios es el nivel de tensión y la existencia o no de incidentes durante las mismas. Esta actitud en nada ayuda al análisis y debate social que se necesita en Euskal Herria para superar lo que es la denuncia y la expresión de sensibilidades enfrentadas y comenzar a plantear fórmulas de solución en clave de justicia y democracia. Es lo que se necesita al menos si se quiere llegar al acuerdo y es lo que tratan de evitar quienes quieren permanecer anclados en ese enfrentamiento.

Las concentraciones convocadas por Gestoras pro-Amnistía tienen dos objetivos. Por un lado se trata de sacar a la luz esa realidad de vulneración de derechos humanos individuales y colectivos que sistemáticamente es negada u ocultada, y por otro, abrir caminos que lleguen a hacer innecesarias concentraciones como las convocadas por los reunidos en torno al «lazo azul» y por nosotros mismos.

Por desgracia, siguen siendo muchas las razones en este país para salir a la calle y éstas seguirán existiendo mientras no seamos capaces de buscar mecanismos que desde la libertad, la justicia y la democracia conduzcan a una normalización de relaciones entre Euskal Herria y los Estados español y francés.

Nadie puede negar a nadie la legitimidad y el derecho de salir a la calle en base a su propia sensibilidad y formas de ver las cosas, pero poco hacemos si no somos capaces de salir del testimonialismo para ir buscando soluciones.

*Se hace más necesario que nunca crear espacios de debate social que ayuden a superar esta situación*

Antes de ayer las Gestoras pro-Amnistía llevamos a la calle un tema de importancia capital, cual es la situación de ilegalidad y crueldad que se impone a los casi 600 ciudadanos vascos encarcelados por motivos políticos. La muerte de uno de ellos hacía además que cobrase una especial relevancia la desasistencia sanitaria de la que son objeto reafirmando de manera dramática el carácter criminal de la política penitenciaria española y francesa.

Además con el lema Euskal Herria Askatu volvíamos a insistir en la necesidad de una solución de diálogo que tenga por objeto el ejercicio de los derechos democráticos a los que Euskal Herria como cualquier otro pueblo tiene derecho.

También hace dos días que familiares y amigos de Javi Gorostiza, junto con Gestoras pro-Amnistía y Senideak daban una conferencia de prensa para valorar esta muerte y lanzar un SOS al conjunto de la sociedad con el objeto de evitar que se produzcan nuevas muertes de vascos en las prisiones españolas o francesas.



El resultado habla por sí mismo. Ni una línea referida a esta comparecencia pública en periódicos como "El Mundo", "Deia", "Diario de Navarra" o "Diario de Noticias". Quince (15) líneas en el "Diario Vasco", 67 en el Correo —17 de ellas dedicadas a hablar de incidentes—.

No es ética, ni profesional esta actitud, pero sobre todo no contribuye en nada a que la sociedad en su conjunto tenga datos para formarse una opinión equilibrada en base a informaciones y mensajes contrastados y por supuesto diversos o incluso antagónicos. Y hablábamos, también nosotros, de gravísimas vulneraciones de derechos humanos que afectan a los vascos, de gente condenada a muerte. En nada ayuda este tratamiento de la información a la implicación y avance en la búsqueda de soluciones a éste y otros temas.

Por eso finalizo este artículo haciendo un nuevo llamamiento a los medios de comunicación a que cambien de actitud y respondan realmente a su papel de trasladar a la opinión pública una información veraz y objetiva.

El enfrentamiento de ideas y sensibilidades no tiene por qué ser negativo, la contradicción es uno de los principales elementos que siempre ha ayudado al avance de la sociedad. Teniendo esto claro y en una situación en la que el enfrentamiento tiene un marcado componente de violencia se hace más necesario que nunca crear espacios de debate social que ayuden a superar esa situación.